



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2019.10.31

Tolosako Udaletxean, 2019ko urriaren 31n, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 31 de octubre de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre el punto del orden del día que se relaciona:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin
Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria
Garbiñe Marzol Ormazabal
Jose M^a Villanueva Telleria

Ez da bertaratu:

Xabier Martinez Quinquilla

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:
2019ko irailaren 26ko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urriaren 15eko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de las siguientes actas:
Sesión Ordinaria del 26 de septiembre de 2019.
Sesión extraordinaria del 15 de octubre de 2019.



- | | |
|---|--|
| 2. Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketaren behin-behineko onarpena. | 2. Aprobación provisional de la modificación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa. |
| 3. Ixitako ekitaldiko fakturak. | 3. Facturas del ejercicio cerrado. |
| 4. 16/2019 kreditu aldaketarako hasierako onarpena. | 4. Aprobación inicial de la modificación de crédito 16/2019. |
| 5. Dirulaguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena. | 5. Aprobación de la modificación del anexo de las subvenciones. |
| 6. 1568/2019 eta 1596/2019 dekretuen berri ematea. | 6. Dar cuenta de los decretos 1568/2019 y 1596/2019. |
| 7. Kreditu aldaketaren berri ematea:
1284/2019 dekretua.
1654/2019 dekretua.
1655/2019 dekretua. | 7. Dar cuenta de la modificación de créditos:
Decreto 1284/2019.
Decreto 1654/2019.
Decreto 1655/2019. |
| 8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2019ko irailaren 1etik 30era (2019/1417-2019/1570). | 8. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:
Del 1 al 30 de septiembre (1417/2019-1570/2019). |
| 9. Mozioa: Gipuzkoako erresidentziak borrokan. | 9. Moción: Residencias de Gipuzkoa en lucha. |
| 10. Galderak eta eskaerak. | 10. Ruegos y preguntas. |

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- 1. Ondorengo aktak onartzea:**
2019ko irailaren 26ko Osoko Bilkurakoa.
2019ko urriaren 15eko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

- 1. Aprobación de las siguientes actas:**
Sesión Ordinaria del 26 de septiembre de 2019.
Sesión extraordinaria del 15 de octubre de 2019.

Parte-hartzeak:

- ... Olatz Artola Apeztegia zinegotziak (EHBILDU) ondoko ekarpena egin du: “Ondo iruditzen zaigu aktaren laburpena idatziz jasotzea eta bideoaren akta izatea eduki guztiekin, baina informazioa eskuragarri edo modu errazago batean edukitze aldera, uste dugu gaur egungo plataforma digitalak edo youtubek ematen duen aukera aprobetxatu behar dela akta gaika banatzeko, bideoakta hori egotea zatituta gaien



TOLOSAKO
UDALA

arabera, horrela, interesa daukan edonork jo dezake berak nahi duen puntura. Orduan, aukera badago, bideoa zatitzea informazioa modu errazago batean jartzeko”.

... Olatz Peon Ormazabal alkatea: *“Oraindik bideoaktarik ez dago, horretan gabiltza orain. Egia da, bideoakta daukaten herrietako web orrietan ikusi izan dut, hori posible dela. Kontuan izango dugu eta bideoakta ezartzeko garaian modu horretan egiten ahaleginduko gara.”*

Izenburuan aipatutako aktak aho batez onartu dira.

2. Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketaren behin-behineko onarpena.

2. Aprobación provisional de la modificación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa.

Parte-hartzeak:

... Xabier Balerdi Tolosa Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpen proposamenaren aurrekariak azaldu ondoren, gaineratu du: *“Hau guztia helburu bakarrekin egiten da, herritarrei zerbitzu hobea ematea. Udate maiatzean jarri zen martxan eta eskaerak bertan zentralizatu nahi dira, eta horretan ari gara, Udalarekin egin beharreko tramite guztiak, eskaerak, lizentziak, errolda ziurtagiriak. e.a. Ikusten ari gara zerbitzu horrek arrakasta duela, baina indartu egin behar dela. Izan ere, zerbitzua zenbat eta azkarrago eman, hobeto, eta zenbat eta jende gehiago izan, zerbitzu hobea emango dugu. Horregatik, proposatzen da hutsik zegoen lanpostu bat egokitu eta administrari bat sartzea funtzio horiek beteko dituen. Proposamena da lau langiletik bostera pasatzea, horrela, ematen diren gorabeherak, baimenak direla, oporrak edo beraien eskubideak, e.a., beteko dira. Hori guztia herritarrei zerbitzu on bat emateko helburua lortuz. Era berean, aprobetxatu nahi dut esateko 010 zerbitzua martxan jarri dugula. Telefono zenbaki horren bidez, Tolosan Udate zerbitzuarekin harremanetan jarriko zinateke.”*

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO URRIAREN 23KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

Tolosako Udalbatzak, 2018ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, bestek beste, 2018. urteko lanpostu zerrenda onartu zuen.



Gaur egun, Herritarren Arreta zerbitzuan lau administrari lanpostu daude eta "jakinarazle-harreragile" bat; azken lanpostu hori joan den maiatzetik hutsik dago, langileari Gizarte Segurantzak aitortutako ezgaitasun iraunkorraren ondoren. Honela, Udateko zerbitzua modu egokian eman ahal izateko, bosgarren langile bat behar dela ondorioztatu da; izan ere, beste hainbat faktorearen artean, egunero dagoen lan karga dela, bat-batean sortzen diren hutsuneak betetzeko arazoak direla edota herritarrei kalitatezko zerbitzu bat emateko, proposatzen da "jakinarazle-harreragile" lanpostua amortizatu eta "Udateko administrari" lanpostu berri bat sortzea. Lanpostu horrek eguneroko arreta zerbitzuez gain, zerbitzuaren beharrak horrela eskatzen duenean, jakinarazle lanak ere egingo ditu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

a) LANPOSTU ZERRENDA

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "*Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatze ahalarren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena.
- Saillapen profesionalean zein taldetako den.
- Lanpostuaren eskala.
- Lanpostua betetzeko modua.
- Ordainsari osagarriak.

Lehen aipatutako 5/2015 Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatze irizpideak.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu lanpostuen zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; saillapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.



TOLOSAKO
UDALA

Bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoren arabera.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantilan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantila aldatzeko prozedura.

b) Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten Legeek Herri Administrazioetan lanpostu berriak sartzeko zailtasunak ezarri dituzte **“birjarpen tasa”** delakoaren bidez.

2018ko ekitaldirako, 2019. urterako aurrekontua ez baitago, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 19. artikuluan lan eskaintza publikoen eta lanpostu berriak hornitzearen inguruan ondokoa xedatzen du:

“ Uno. 1. La **incorporación de nuevo personal** en el sector público delimitado en el artículo anterior, a excepción de las sociedades mercantiles públicas y entidades públicas empresariales, fundaciones del sector público y consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el Sector Público, que se regirán por lo dispuesto en las disposiciones adicionales décima quinta, décima sexta y décima séptima respectivamente, de esta Ley y de los Órganos Constitucionales del Estado, **estará sujeta a los límites y requisitos** establecidos en los apartados siguientes.

2. Respetando, en todo caso, las disponibilidades presupuestarias del Capítulo I de los correspondientes presupuestos de gastos, en los siguientes sectores y administraciones la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 100 por ciento:

.../...

C) Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Policía Autónoma de aquellas Comunidades Autónomas que cuenten con Cuerpos propios de dicha Policía en su territorio, y, en el ámbito de la Administración Local, personal de la Policía Local, en relación con la cobertura de las correspondientes plazas de dicha Policía.

.../...

F) Administraciones Públicas respecto del asesoramiento jurídico y la gestión de los recursos públicos.

.../...



TOLOSAKO
UDALA

O) Plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios sociales.

.../...

S) Personal de atención a los ciudadanos en los servicios públicos.

.../...

3. En los **sectores** y Administraciones **no recogidos en el apartado anterior**, la tasa de reposición se fijará hasta un **máximo del 50 por ciento**.

4. Para calcular la tasa de reposición de efectivos, el porcentaje máximo a que se refiere el apartado anterior se aplicará sobre la diferencia resultante entre el número de empleados fijos que, durante el ejercicio presupuestario de 2015, dejaron de prestar servicios en cada uno de los sectores, ámbitos, cuerpos o categorías, previstos en el apartado anterior y el número de empleados fijos que se hubieran incorporado en los mismos, en el referido ejercicio, por cualquier causa, excepto los procedentes de ofertas de empleo público, o reingresado desde situaciones que no conlleven la reserva de puestos de trabajo. A estos efectos, se computarán los ceses en la prestación de servicios por jubilación, retiro, fallecimiento, renuncia, declaración en situación de excedencia sin reserva de puesto de trabajo, pérdida de la condición de funcionario de carrera o la extinción del contrato de trabajo o en cualquier otra situación administrativa que no suponga la reserva de puesto de trabajo o la percepción de retribuciones con cargo a la Administración en la que se cesa.

No computarán dentro del límite máximo de plazas derivado de la **tasa de reposición** de efectivos las **plazas** que se convoquen para su provisión mediante procesos de **promoción interna** y las correspondientes al **personal** declarado **indefinido no fijo mediante sentencia judicial**.

Beraz, lege honetatik ondorioztatu daiteke ezin dela 2019. urtean aipatu "Udateko administrari" lanpostu berri hau behin betiko izaeraz bete, soilik behin-behineko izaeraz, eta 2020. urtean, erreposizio tasa betetzen badu Udalak, orduan hau behin betiko izaeraz hornitu ahal izango du.

Kasu honetan, aldi baterako izendapenari zein kontratazioei dagokienez, aipatu uztaillaren 3ko 6/2018 Legeak 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, lege horretako 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, sail bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:



- Proposatu nahi den kontratazioak ohiz kanpokoak izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Guzti hori kontuan hartuta, udal idazkariak dagokion txostena egin du alderdi horiek justifikatuaz.

Bukatzeko esan behar da lanpostu berriak 8.053,31 (6.055,12 ordainsarrietan eta 1.998,19 euro gizarte segurantzian) euroko gastu gehikuntza izango duela urtean. Ildo honetatik, Erregimen Lokaleko Testu Bateginak 126. artikuluan honelaxe dio:

“1. Las plantillas, que deberán comprender todos los puestos de trabajo debidamente clasificados reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, se aprobarán anualmente con ocasión de la aprobación del Presupuesto y habrán de responder a los principios enunciados en el artículo 90.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril. A ellas se unirán los antecedentes, estudios y documentos acreditativos de que se ajustan a los mencionados principios.

2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:

a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.

b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.

Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.

3. La modificación de las plantillas durante la vigencia del Presupuesto requerirá el cumplimiento de los trámites establecidos para la modificación de aquél.”

Kontuan hartuta amortizatu nahi den lanpostuaren titularrari 2019ko otsailaren 13ko ondorioekin ezgaitasun iraunkorra onartu zitzaioela, plantila aldatzeko nahiko konsignazio badagoela aurreikusten da.



TOLOSAKO
UDALA

c) ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 37.1 artikulua c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin tratatu zen, 2019ko urriaren 1eko eta urriaren 15eko bileretan.

d) ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udaltzako eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, TATBren 127. artikulua arabera, plantila organikoaren prozedura berdina jarraituz, behin Udaltzako onartu ondoren, onartutako akordio hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratu behar da eta 15 laneguneko epean informazio publikoan eduki. Alegaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da.

Hori guztia ikusirik, Antolakuntza Batzordeak, Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Aitana Amondarain Esquisabel, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleriaren aldeko botoekin, aho batez, hauxe da eman duen

IRIZPENA

Lehenik.- "Jakinarazle-harreragile" lanpostua (3.203 kodea) amortizatzea eta "Udaleko administrari" lanpostu berri bat sortzea (3.202.4 kodea).

Bigarrenik.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea eta 15 lanegunetan jendaurrean edukitzea.

Udaltzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzako aho batez **onartu du, behin-behinean**, Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa.



3. Itxitako ekitaldiko fakturak.

3. Facturas del ejercicio cerrado.

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioako zinegotzi delegatuak, azalpenak eman ditu.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO URRIAREN 23KO IRIZPENA.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 61. artikuluan dioenaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldiko faktura data dute eta 2019an jaso ziren, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FAKTURAR EN DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	KONTZEPTUA	KOPURUA
2019-05-31	2018-03-31	0700.227.07.153.00 2019	CENTROS PARA LA FORMACION Y PREVENCIÓN LABORAL S.L.	SS/000523/18	Osasun eta segurtasunaren koordinazioa Oriaburun	90,75
2019-06-18	2018-12-30	0700.643.01.153.00 2018	INICIATIVAS DE TECNOLOGIA Y SOSTENIBILIDAD S.L.	4318	Autokontsumorako proiektu fotoboltaikoa	5.227,20
2019-06-21	2018-12-28	0300.626.01.920.20 2019	COMPONENTES Y DESARROLLOS INFORMATICOS S.L.	2054	Informatika sailerako materiala	560,84
2019-06-26	2018-06-24	0800.226.06.338.00 2019	ASOCIACION CULTURAL MUSICAL "JONES"	07/18	2018 San Joanetan "Kalean" txarangak eskainitako saioa	1.452,00
2019-07-15	2018-09-20	0800.220.00.332.10 2019	BAYARD REVISTAS S.A.U.	FAS190257	Haur Liburutegirako "I love english"-en harpidetza	49,60

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2018ko abenduaren 3an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2019ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura horiek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.



TOLOSAKO
UDALA

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:

FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KOPURUA
2018-03-31	CENTROS PARA LA FORMACION Y PREVENCIÓN LABORAL S.L.	SS/000523/18	90,75
2018-12-30	INICIATIVAS DE TECNOLOGIA Y SOSTENIBILIDAD S.L.	4318	5.227,20
2018-12-28	COMPONENTES Y DESARROLLOS INFORMATICOS S.L.	2054	560,84
2018-06-24	ASOCIACION CULTURAL MUSICAL "JONES"	07/18	1.452,00
2018-09-20	BAYARD REVISTAS S.A.U.	FAS190257	49,60

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amundarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol



TOLOSAKO
UDALA

Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** itxitako ekitaldiko fakturak

4. 16/2019 kreditu aldaketarako hasierako onarpena. **4. Aprobación inicial de la modificación de crédito 16/2019.**

... Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioako zinegotzi delegatuak, ondorengo proposamenen azalpenak eman ditu: *“Aurkezten dugun kreditu aldaketa gehigarri modalitatekoa da, dena gerakinetatik finantzatutakoa, eta 95.350,00 eurokoa da. Partidak dira: Informatika zerbitzuak migrazioa egiteko linuxetik; Gizarte Zerbitzuetakoa, aurreko plenoan onartu genuen Nafarroa erdialdean uholdeen ondorioz kaltetutako udalerriei dirulaguntza emateko; bestelako hornidurak, parkeak eta lorategiak, 15.000 euroko partida agortu da eta konponketa batzuk egiteko. Bestaldetik, Haur Eskolaren eraikinaren mantentzea, pintaketa lanak egiteko; Zerbitzuen funtzionamendurako eraikinak, Zuloaga Txikiko jarduera proiektua aurrera eramateko da. Bukatzeko, eraikinen mantentze-lanak, eraikin publikoak, 25.000 euro partidan, urtean zehar sortu diren aurreikusi gabeko hainbat mantentze-lan burutzeko da, besteak beste, Topic-eko agertokia konpontzeko eta bukatuta zeuden hainbat partidatan dirua jartzeko”.*

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO URRIAREN 23KO IRIZPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2019/16 espedientearen berri eman da. Kreditu gehigarrien modalitatekoa da.

Hau da proposamena:



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.227.11.920.20 2019	INFORMATIKA.ZERBITZUAK. INFORMATIKA	167.600,00	18.150,00	185.750,00
1 0500.481.01.231.00 2019	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERBITZUAK	202.235,00	2.000,00	204.235,00
1 0700.221.99.171.00 2019	BESTELAKO HORNIDURAK. PARKE ETA LORATEGIAK	20.000,00	15.000,00	35.000,00
1 0900.211.01.323.10 2019	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. HAUR ESKOLA	8.500,00	3.200,00	11.700,00
1 0700.622.02.920.31 2019	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK	405.000,00	32.000,00	437.000,00
1 0700.211.01.920.31 2019	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ERAIKIN PUBLIKOAK	50.000,00	25.000,00	75.000,00
GUZTIRA		853.335,00	95.350,00	948.685,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2019	ALTXORTEKIKO GERAKINA	95.350,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			95.350,00

Kontuhartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2019/16 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	61.350,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	32.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		95.350,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	95.350,00
GUZTIRA		95.350,00



Bigarrena.- Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak **aho batez hasierako onarpena eman dio** 16/2019 kreditu aldaketari.

5. Dirulaguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena. **5. Aprobación de la modificación del anexo de las subvenciones.**

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioako zinegotzi delegatuak, azalpenak eman ditu.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO URRIAREN 23KO IRIZPENA.

2019ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenak hauexek dira:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2019	Tipoa
0500.481.01.231.00	ENTITATEAK	Nafarroa erdialdeko uholdeak	2.000,00	38/2003 legearen 22.2 c)
1100.481.01.430.00	ENPRESAK	Lehiakortasuna	15.000,00	Norgehiagoka
1100.481.01.430.00	ENPRESAK	lehiakortasuna	-3.000,00	Norgehiagoka
1400.481.01.231.60	ELKARTEAK	Berdintasuna	6.000,00	Norgehiagoka
1400.481.01.231.60	ELKARTEAK	Berdintasuna	-1.397,00	Norgehiagoka



TOLOSAKO
UDALA

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta hau, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea eta aldatutako dirulaguntza horiek honela uztea:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin-betiko Aurrekontua 2019	Tipoa
0500.481.01.231.00	ENTIDADES	Nafarra erdiladeko uholdeak	2.000,00	38/2003 legearen 22.2 c)
1100.481.01.430.00	ENPRESAK	Lehiakortasuna	12.000,00	Norgehiagoka
1400.481.01.231.60	ELKARTEAK	Berdintasuna	4.603,00	Norgehiagoka

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2019ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



TOLOSAKO
UDALA

Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzabak aho batez erabaki du dirulaguntzen eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea.

6. 1568/2019 eta 1596/2019 dekretuen berri ematea. **6. Dar cuenta de los decretos 1568/2019 y 1596/2019.**

Alkateak 2019ko irailaren 30ean emandako 1568 Dekretuaren eta urriaren 3an emandako 1596 Dekretuaren berri eman die bertaratutakoei.

2019/1568 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZAREN DEKRETUA
ZK. 2019 / 1568

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan xedatutakoarekin.

Emitido por Dña. OLATZ PEON ORMAZABAL, alcaldesa-presidenta del Ayuntamiento de Tolosa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

2019ko uztailaren 16ko 1228/2019 Alkatezaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak kontratazioarekin zerikusia duten hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, zehazki 600.000,00 eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.

Mediante Decreto de Alcaldía 1228/2019, de 16 de julio de 2019, la alcaldesa-presidenta acordó delegar en la Junta de Gobierno Local diversas competencias en materia de contratos, en concreto aquéllos con un valor estimado superior a 600.000,00 euros.

Horiek horrela, 2015eko uztailaren 15ean, Tolosako Udalak eta TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, SL enpresak kontratua sinatu zuten Udaleko Kultura Departamentuak antolatutako ikastaroak emateko zerbitzua arautzen zuena. Kontratu hark lau urteko

Siendo esto así, el 15 de julio de 2015 se suscribió el contrato entre el Ayuntamiento de Tolosa y la mercantil TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, S.L. para la preparación e impartición de los cursos organizados por el Departamento



TOLOSAKO
UDALA

iraupena zuen eta hura beste bi urtez luzatzeko aukera aurreikusten zen. Behin kontratuaren amaiera data iritsita, eta hura luzatzeko jardunbidea hasita, ikusi da Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan Tokiko Gobernu Batzarrari uzten zitzaiola luzapen hori adosteko eskumena, nahiz eta organo eskuduna alkate-lehendakaria izan.

Halere, kontratuaren bukaera iristear dagoenez eta data hori baino lehenago Tokiko Gobernu Batzarra berriro bilduko ez denez, beharrezkoa da 2015eko uztailaren 15ean Tolosako Udalaren eta TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, S.L. enpresaren artean, Udaleko Kultura Departamentuak antolatutako ikastaroak emateko zerbitzuaren kontratuaren luzapena onartzeko eskumena abokatzea.

Ondorioz, Alkateak

EBAZTEN DU

Lehena.- Beregan abokatzea aipatutako eskumenak, 2015eko uztailaren 15ean Tolosako Udalak eta TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, SL enpresak sinatutako kontratuaren luzapena onartzeko, Udaleko Kultura Departamentuak antolatutako ikastaroen zerbitzua emateko.

Bigarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ebazpenaren berri ematea Udalak egiten duen lehenbiziko osoko bilkuran.

Hirugarrena.- Dekretua bete bedi eta legearen arabera jakinaraz bekio interesdunari eta Kultura, Festak eta Gazteria Sailari.

municipal de Cultura. Dicho contrato tenía una duración de cuatro años, pudiendo prorrogarse por dos años más. Llegado el vencimiento del contrato e iniciado el procedimiento para su prórroga, se constata que en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares se encomienda a la Junta de Gobierno Local la competencia para acordar dicha prórroga, aun cuando el órgano competente sería la alcaldesa-presidenta.

Ahora bien, ante el vencimiento inminente del contrato y teniendo en cuenta que la Junta de Gobierno Local no va a reunirse antes de la finalización del citado plazo, es necesario avocar la competencia para la prórroga del contrato para la preparación e impartición de los cursos organizados por el Departamento municipal de Cultura, suscrito el 15 de julio de 2015 entre el Ayuntamiento de Tolosa y la mercantil TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, S.L.

En base a ello, esta Alcaldía

RESUELVE

Primero.- Avocar para sí las citadas competencias, para proceder a la prórroga del contrato para la preparación e impartición de los cursos organizados por el Departamento municipal de Cultura, suscrito el 15 de julio de 2015 entre el Ayuntamiento de Tolosa y la mercantil TEILAZPI KULTUR TAILERRAK, S.L.

Segundo.- Publicar esta resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, dando cuenta de la misma en la próxima sesión plenaria del Ayuntamiento.

Tercero.- Cúmplase el Decreto anterior y notifíquese en forma legal al interesado y al Área de Cultura, Fiestas y Juventud.



TOLOSAKO
UDALA

Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, udal idazkari naizen honek, ziurtatua, 2019ko irailaren 30an.

La alcaldesa-presidenta que ordena y firma, y yo, la secretaria municipal, que doy fe, el día 30 de septiembre de 2019.

Nire aurrean,

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

2019/1596 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

1.596/2019

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-kehendakariak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 23.3 artikuluetan xedatzen duenaren arabera,

IKUSIRIK

LEHENA.- 2019-2023 legealdirako Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatetza honek beharrezkotzat jo zuen izaera orokorreko eta izaera bereziko eskuduntzak hainbat zinegotziren esku uztea, 2019ko uztailaren 12an egindako 1.208/2019 Dekretua osatuz. Izan ere, Alkatetzak eskuordetu ditzake bere eskumenak, baldin eta eskuordetzan eman badaitezke, aplikatzekoa den legeriaren arabera. Dekretu honen iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko abuztuaren 9an (151. zk.an).

Aipaturiko Dekretuan, Alkatetza honek ondorengo xede nagusiak ebatzi zituen:

1. Tolosako Udalean abian jartzea hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua: **Antolakuntza, Lurraldea eta Herritarrak**. Halaber, lan-esparru bakoitzak barne dituen sailak eta azpisailak onartzea, denen arteko koordinaziorako eta plangintzarako aipatutako hiru arloetan bilduz.
2. Lan-Esparru bakoitzeko koordinatzaile politikoak izendatzea.



3. Zinegotzi delegatuak izendatzea eta Alkatetzari dagokion hainbat ahalmen beraiengan eskuordetzea.
4. Udal Saitetako arduradun teknikoen -karrerako funtzionarioen- esku hainbat ahalmen eskuordetzea.
5. Emandako eskuordetzei aplikatu beharreko araubide juridikoa arautzea.

BIGARRENA.- Halaber, Alkatetza honek, 2019ko uztailaren 16an emandako 1228/2019 Dekretuan, Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu zituen ahalmen batzuk. Dekretu honen iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko abuztuaren 12an (152 zk.an).

HIRUGARRENA.- 1.208/2019 Dekretuko testua berraztertu ondoren, ondorengo akatsak aurkitu dira:

- 4.1. atalean, Gainerako kontratuak tituludun atalean, Ondare eta Kontratazio azpisaila jarri beharrean, **Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea** jarri behar da.
- 4.2.2 atalean, Giza Baliabideen azpieren Antolaketako zinegotziaren esku utzitako eskumenak arautzen dira. Bertan, gaztelaniazko testua ondoko hau aipatzen da: *Presidir la Mesa de Contratación en relación con los RR. HH. Esaldi hori ez dago Dekretuaren jatorrizko idazlanean, aipatutako organorik ez dagoelako. Beraz, esaldia ezabatu egin behar da, euskarazko testuarekin bat etorritz.*
- Dekretu honen Bosgarren ebazpenak, Delegazioen araubidea xedatzen duenak, bere 9. atalean berraztertze helegiteen gaia arautzen du. Segurtasun juridikoa bermatzearen, atal honi beste idazketa bat emango zaio, testu honen arabera:

EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIA
9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Ogasun Sailekoak eta kontratu txikiak izan ezik.	9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Diru-bilketako Sailekoak izan ezik.

LAUGARRENA.- Bestaldetik, eskuordetzen eredu berria abiatu zenetik, hainbat hobekuntza egiteko beharra ikusten da, ondoko gai hauetan:

- 4.2.1. atalak, udal ondarearen kudeaketaren arloan jasotako eskuordetzak barneratzen dituenak, idazketa berria izango du, ondoko era honetan:
-



EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIAK
<p>Izapideko egintzak, ebazpenen onarpena eta baita kontratuak formalizatzea ere ondorengo espedienteekiko eta betiere alkatearen eskumenekoak direnean: udal garaje plazen alokairua edo erabilera, administrazio emakidako erregimenaren bidez utzitakoak, udal etxebizitzaren alokairuak, lagapenak edo besterentzeko baimenak, eta udal lokalen lagapenak.</p>	<p>- Udal-ondarea kudeatzearekin eta besterentzearekin lotutako espedienteak sustatzea, izapideko egintzak burutzea, ebazpenak onartzea, eta bere kasuan, kontratuak edo hitzarmenak formalizatzea, betiere alkatearen eskumenekoak direnean, baldin eta aurrekontua 600.000 eurotik gorakoa ez bada, (BEZik gabe).</p> <p>- Udal lokalen erabilera lagatzea edo erabiltzeko baimena onartzea, gehienez ere urtebeterako.</p>

- 4.2.5. atalean, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailean emandako eskuordetzak berraztertu dira, eta ondorengo zuzenketak eta hobekuntzak egingo dira:

EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIAK
<p>- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak agintzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.</p> <p>- Zergak, errentak eta eskubide ekonomikoak bildu eta ikuskatzea; zehazki, hauek:.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreklamazioak ebaztea. • Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena ematea. 	<p>- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak izenpetzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.</p>

- 4.2.11. atalean jasotako lehenengo eskuordetze bereziari, ondoko edukia emango zaio: **Idazkaritza Orokorreko eta Kontuhartzaitzako titularrek izenpeturiko ziurtagiriei oniritzia ematea.**

- 4.2.11. atalean jasotako bigarren eskuordetze berezia bertan behera utziko da, eta bere ordez, 4.1. atalean, ondoko testua txertatuko da: **Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak:.....(azken paragrafoan): Jakinarazpenak: oro har, agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak. Era honetan, zinegotzi delegatu bakoitzak izenpetuko ditu bere arloko eskuordetzari dagozkion jakinarazpenak eta iragarkiak.**



KONTUAN HARTURIK

Alkatetzaren eskumenen delegazioa arautzen duen legeria: 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.3 eta 23.4 artikuluetan xedaturikoa, eta azaroaren 28ko 2.568/86 Errege-Dekretuak, Udal Entitateen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, 43.3 artikuluan xedaturikoa, eta aipaturiko Errege-Dekretuko 114. eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa.

Eskumenen delegazioa arautzen duen araubide orokorra: Sektore Publikoko Araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan xedaturikoa.

Egintza administratiboen akatsen zuzenketa arautzen duen legeria, hain zuzen, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkidea arautzen duenak, 109. artikuluan xedaturikoa.

Horiek horrela, alkate honek, ondoko hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Alkatetza honek 2019ko uztailaren 12an emandako 1208/2019 Dekretua aldatzea, ondoko hauen arabera:

a) Akatsen zuzenketak:

- 4.1. atalean, Gainerako kontratuak tituludun atalean, Ondare eta Kontratazio Azpisaila jarri beharrean, **Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea** jarri behar da.
- 4.2.2 atalean, Giza Baliabideen Azpisailean Antolaketako zinegotziaren esku utzitako eskumenak arautzen dira. Bertan, gaztelaniazko testuan ondoko hau aipatzen da: *Presidir la Mesa de Contratación en relación con los RR. HH. Esaldi hori ez dago Dekretuaren jatorrizko idazlanean, aipatutako organorik ez dagoelako. Beraz, esaldia ezabatu egin behar da, euskarazko testuarekin bat etorritz.*
- Dekretu honen Bosgarren ebazpenak, Delegazioen araubidea xedatzen duenak, bere 9. atalean berraztertze helegiteen gaia arautzen du. Segurtasun juridikoa bermatzearren, atal honi beste idazketa bat emango zaio, testu honen arabera:

EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIA
9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Ogasun Sailekoak eta kontratu txikiak izan ezik.	9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Diru-bilketako Sailekoak izan ezik.



b) Hobekuntzak:

- 4.2.1. atalak, udal ondarearen kudeaketaren arloan jasotako eskuordetzak barneratzen dituenak, idazketa berria izango du, ondoko era honetan:

EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIAK
<p>Izapideko egintzak, ebazpenen onarpena eta baita kontratuak formalizatzea ere ondorengo espedienteekiko eta betiere alkatearen eskumenekoak direnean: udal garaje plazen alokairua edo erabilera, administrazio emakidako erregimenaren bidez utzitakoak, udal etxebizitzaren alokairuak, lagapenak edo besterentzeko baimenak, eta udal lokalen lagapenak.</p>	<p>- Udal-ondarea kudeatzearekin eta besterentzearekin lotutako espedienteak sustatzea, izapideko egintzak burutzea, ebazpenak onartzea, eta bere kasuan, kontratuak edo hitzarmenak formalizatzea, betiere alkatearen eskumenekoak direnean, baldin eta aurrekontua 600.000 € tik gorakoa ez bada, (BEZik gabe).</p> <p>- Udal lokalen erabilera lagatzea edo erabiltzeko baimena onartzea, gehienez ere urtebeterako.</p>

- 4.2.5. atalean, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailean emandako eskuordetzak berraztertu dira, eta ondorengo zuzenketak eta hobekuntzak egingo dira:

EZABATZEN DEN PARAGRAFOA	PARAGRAFO BERRIAK
<p>- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak agintzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.</p> <p>- Zergak, errentak eta eskubide ekonomikoak bildu eta ikuskatzea; zehazki, hauek:.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreklamazioak ebaztea. • Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena ematea. 	<p>- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak izenpetzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.</p>

- 4.2.11. atalean jasotako aurreneko eskuordetze bereziari emango zaio ondoko edukia: **Idazkaritza Orokorreko eta Kontuhartzaitzako titularrek izenpeturiko ziurtagiriei oniritzia ematea.**

- 4.2.11. atalean jasotako bigarren eskuordetze berezia bertan behera utziko da, eta bere ordez, 4.1. atalean, ondoko testua txertatuko da: **Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak:.....(azken paragrafoan): Jakinarazpenak: oro har, agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak.**



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Dekretu hau dagokien zinegotziei jakinaraztea, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotzi bakoitzak onartu duela ulertuko da, baldin eta haren aurka ez badu ezer adierazten Dekretu hau jakinarazi eta hurrengo bi eguneko epean.

HIRUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udal sail guztiei eta Osoko Bilkurari,

LAUGARRENA.- Dekretua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta Gardentasunaren Atarian, eta Udaletxeko Iragarki Taulan jartzea.

BOSGARRENA.- Dekretu hau Dekretuen Liburuan transkribatzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Alkate-lehendakariak agindua eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2019ko urriaren 3an.

ALKATEA

Nire aurrean,

IDAZKARIA

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

7. Kreditu aldaketaren berri ematea:

1284/2019 dekretua.

1654/2019 dekretua.

1655/2019 dekretua.

7. Dar cuenta de la modificación de créditos:

Decreto 1284/2019.

Decreto 1654/2019.

Decreto 1655/2019.

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko zinegotzi delegatuak, azalpenak eman ditu: *hiru kreditu aldaketatik, lehenengoa, 1284/2019 Dekretuan onartutakoa, 12. kreditu aldaketa da gerakinetatik finantzatzen dena. Bertan erabili dira alkateari dagokion % 5a, Tolosa Lotzen sozietateren zerga ordaindu ahal izateko. Bestaldetik, 1664 Dekretuan, 14. kreditu aldaketa onartu da, gehikuntza modalitatekoa. Eusko Jaurlaritzatik jaso ditugun 19.892,00 euro, Samaniegoko hezetasunak konpontzeko eta EPAko obra batzuk egiteko. Eta azkenengoa, 15. kreditu aldaketa, transferentzia modalitatekoa, Berdintasun Sailak dirulaguntzaren deialdia egin eta, ebazpena eman ondoren, geratu zen diru kopurutik, 1.397 euro Berdintasun jardueretara pasako dira. Bestalde, Garapen Ekonomikoko dirulaguntzatik geratutako 3.000 euro horiek pasa dira Oriaburu eraikuntzako mantentze-lanak egiteko eta altzari batzuk erosteko.*"

Alkatetzak kreditu aldaketaren inguruko dekretuen berri eman die bertaratutakoei:



TOLOSAKO
UDALA

1284/2019 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA
2019/ 1284

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000012-00 zenbakiduna,

Ikusita kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	9.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		9.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	9.000,00
GUZTIRA		9.000,00



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko uztailaren 29a

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

1654/2019 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

2019/ 1654

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2019-KALD-000014-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontuhartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITUETAN	1.389,00
6	INBERTSIO ERREALAK	18.503,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		19.892,00



SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	1.389,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	18.503,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		19.892,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko ekainaren 16a

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

1655/2019 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA 2019/ 1655

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2019-KALD-000015-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	26.000,00	4.397,00	21.603,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		26.000,00	4.397,00	21.603,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	72.600,00	2.897,00	75.497,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	10.000,00	1.500,00	11.500,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		82.600,00	4.397,00	86.997,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko urriaren 16a

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.



TOLOSAKO
UDALA

- 8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**
2019ko irailaren 1etik 30era (2019/1417-2019/1570).
- 8. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:**
Del 1 al 30 de septiembre (1417/2019-1570/2019).

Alkatetzak 2019ko irailaren 1etik 30era (2019/1.417-2019/1.570) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

- 9. Mozioa: Gipuzkoako erresidentziak borrokan.**
- 9. Moción: Residencias de Gipuzkoa en lucha.**

Bi mozio aurkeztu dira, bata, EHBILDU alderdiak aurkeztu duen "Gipuzkoako erresidentziak borrokan" izenekoa, eta, bestea, *Adineko pertsonentzako eguneroko egoitzei buruzko mozioa* duen izenburuarekin EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak aurkeztu duena.

Lehenik, Ander Figuerido Zubiria EHBILDUko zinegotziak mozioa irakurri du.

Mozioaren testua honako hau da:

MOZIOA: GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN

ARRAZOIAK

Gipuzkoako egoitza eta eguneko zentroetako 5.000 langileek lau urtetik gora daramate lan hitzarmenik gabe eta lan baldintzetan hobekuntzarik izan gabe. Ondorioz, greba eta mobilizazioetan murgilduta daude lan-baldintza eta zaintza duinaren alde.

Pasa den urriaren 7tik 18ra Gipuzkoako lurralde osoko herri ezberdinetan (tartean Tolosan ere bai) protesta martxak egin zituzten ehunka langilek "Zaintzaileak zainduz, bizitzak zaindu" lelopean.

Behar beharrezkoa da egoitzetan eta egoitza hauek kudeatzeko ereduan, pertsonak lehenestea eta zaintzaren kalitate duina bermatzea. Pertsonak lehenesten direnean erabiltzaile eta langileak ere zaintzen dira, ezin daiteke gauza bat ulertu bestea gabe.



TOLOSAKO
UDALA

Horregatik premiazkoa da langileen ordezkariak diren sindikatuak eta sektoreko patronala negoziazioetan murgiltzea, akordiorako borondatearekin garatuko den negoziazio fase berri bat zabalduz. Zentzu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak negoziazioa sustatu eta balizko akordioaren ondorioak ahalbidetu behar lituzke. Izan ere, zerbitzuaren %90a Foru Aldundiak finantzatzen du eta ondorioz aktore oso garrantzitsua izan behar luke gatazka honen konponbidean.

ELA sindikatuak Foru Aldundia aldean arteko akordioa blokeatzen aritu izana salatu du publikoki eta hori larria da. Onartezina da zaintzaren eta langileen lan baldintzen duintasuna ahalbidetuko lituzkeen akordioak egikaritzeari uko egitea, dirua aurrezteko aitzakiarekin. Pertsona helduen zaintza ezin da negozio bat bezala ulertu.

Zaintza lanena sektore feminizatua da, kasu honetan langileen %98a emakumeak dira eta soldata-arrakala ere pairatzen dute. Langileak gehienbat gizonezkoak izaten diren beste sektore azpikontratatuaren aldean, 6.000 euro gordineko soldata arrakala dutela kalkulatu da. Benetan eskandalagarria.

Zalantzarik gabe, guzti honek ondorio kaltegarriak ditu egoiliarrek jasotzen duten arretan. Gipuzkoako egoitza hauetan, pertsona nagusi bakoitzak egunean soilik ordu eta erdiko arreta jasotzen du, pertsonal falta larria dagoelako. Hau ez da kalitatezko arreta bat eta Foru Aldundiak ezin du arazoa berea ez balitz bezala jokatu.

MOZIOA

- 1. Tolosako udalak elkartasuna agertzen die lan baldintza eta zaintza duinen alde borrokan ari diren Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiei, eta modu berezian Tolosako zaintza lanak egiten dituzten eta azpikontratatuak Zu eta Biok enpresako langileei.*
- 2. Tolosako udalak Gipuzkoako Foru Aldundia premiatzen du gizarte arazo bat suposatzen duen lan gatazka hau epe laburrean konpontzeko ardura har dezala eta beharrezko diren baliabideak bideratu ditzala egoiliarrei ahalik eta kalte txikiena sortzeko.*
- 3. Tolosako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio sustatu dezala aipaturiko zerbitzuen ratioak hobetuko dituen neurriak, egoiliarren profil berrietara egokituz.*

Tolosan, 2019ko urriaren 28an

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria eta Garbiñe Marzol Ormazabal

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea



TOLOSAKO
UDALA

Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak **ez du onartu** Gipuzkoako erresidentziak borrokan izeneko mozioa.

Jarraian, Jose M^a Villanueva Telleriak, PSE-EE alderdiko zinegotziak, EAJ/PNV eta PSE/EE alderdiak aurkezturiko mozioa irakurri du.

Testuak honela dio:

“ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEROKO EGOITZEI BURUZKO MOZIOA

Gipuzkoako egoitza eta eguneroko zentroetako langileak greba eta mobilizazioetan murgilduta daude lan-baldintza eta zaintza hobetzearen alde.

Pasa den urriaren 7tik 18ra Gipuzkoako lurralde osoko herri ezberdinetan (tartean Tolosan ere bai) protesta martxak egin zituzten langilek "Zaintzaileak zainduz, bizitzak zaindu" lelopean.

Behar beharrezkoa da egoitzetan eta egoitza hauek kudeatzeko ereduan, pertsonak lehenestea eta zaintzaren kalitatea bermatzea. Pertsonak lehenesten direnean erabiltzaile eta langileak ere zaintzen dira, ezin baitaiteke gauza bat ulertu bestea gabe.

Horregatik premiazkoa da langileen ordezkariek diren sindikatuak eta sektoreko patronala negoziazioetan murgiltzea, akordiorako borondatearekin garatuko den negoziazio fase berri bat zabalduz.

Hau dela eta...

- 1. Tolosako Udalak bere kezka adierazten du adinekoentzako eguneko zentro eta egoitzetan irekita dagoen lan-gatazkagatik, gatazkak luze irauteak zerbitzua gauzaterakoan erabiltzaileen eta haien senitartekoen artean eragin ditzakeen gorabeherak direla-eta.*
- 2. Tolosako udalak elkartasuna agertzen die lan baldintza eta zaintza hobetzearen alde ari diren Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiei, eta modu berezian Tolosako zaintza lanak egiten dituzten eta azpikontratutako "Zu eta Biok" enpresako langileei.*
- 3. Tolosako Udalak lan-gatazka honetan inplikaturako sindikatu etako eta patronaletako eragile guztiei eskatzen die bilatzeko gatazka amaituko duen akordio bat, Gipuzkoako adinekoentzako egoitza-zentroen lan-hitzarmenaren negoziazio mahaiaren esparruan.*



TOLOSAKO
UDALA

4. Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio gatazka hau gainditu ahal izateko bideak jorratzen jarraitzea.
5. Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, bereziki greba-aldietan eta haren ikuskaritza zerbitzuen bitartez, ematen den zerbitzuaren kalitatea zaintzeko eta bermatzeko greba-deialdietan parte hartzen duten zentroetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzen direla.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazquin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** EAJ/PNV eta PSE/EE alderdiak aurkezturiko *Adineko pertsonentzako eguneroko egoitzei buruzko* mozioa.

Parte-hartzeak:

... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE). “Uste dut inportanteena dela adieraztea gure elkartasuna langileei, borroka honetan dauden langileekin. Pertsonalki badakit ze kostu pertsonala duen egoera honek Ni gizarte ekimeneko ikastetxe bateko langilea naiz eta bi urte daramagu borrokarekin eta badakit zer suposatzen duen honek. Jakinik ze suposatzen duen egora honetan egoteak gure elkartasuna adierazi nahi dut. Gure kasuan gertatzen den bezala, irtenbidea bilatzea ez da erraza. Alde batetik, bi agente daude, patronala eta sindikatuak eta, bestetik, hirugarren agentea, dirua jartzen duena, Eusko Jaurlaritza, gure kasuan, eta zuenean, Gipuzkoako Foru Aldundia. Ziur nago Gipuzkoako Foru Aldundia ahaleginak egiten ari dela konponbidea bilatzeko. Arazo konplexuak dira. Politika mailan erabakiak etorkizunari begiratuta hartu behar dira. Eta gure etorkizuna nolakoa da? Alde batetik, Euskal Herriak munduko jaiotze-tasa baxuena dauka, gure gizartea gero eta zaharragoa da, eta gastu sozialak handiagoak badira, beste zerbitzu batzuen beharrak izango ditugu, eta politikook ardura handia dugu. Adosterakoan, nik ez nuen ikusten zehaztea zer ratio jarri behar den, gure eskumena ez da, baina, bestetik, etorkizunera begira, gure ardura da. Horregatik, esaten dut, alde batetik, elkartasuna adierazi, eta, bestetik, aipatutako hiru agenteek ardura handia dute eta eskatu behar da ahalik eta azkarren konponbidea bilatzea.”

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): “Mozio hau zaintza lanbidearen duintasuna eta, ondorioz, zerbitzuaren kalitatea hobetzea eskatzen duten langile batzuei erantzunez aurkeztu genuen. Beraien kezka eta egoera ezagututa,



garrantzitsua iruditzen zaigu lanbide honen duintasuna bideratzea eta hori dauzkaten lan baldintzak hobetuz dator. Honen inguruko erabakirik badakit udal honetan ez dela hartuko, oso-oso garbi daukat hori, baina zer esana badaukagu, izan ere, herri honetako eta eskualde honetako biztanleei dagokien zerbitzu bati buruz ari gara eta herri honetako eta eskualde honetako langile batzuen lan baldintzen inguruan. Mozio honek aukera ematen digu hiru gairen inguruan hitz egiteko: batetik, zaintza lanean prekarietatearen inguruan; beste batetik, zerbitzu honen ereduaren inguruan; eta, beste alde batetik, ardurei buruz hitz egiteko ere bai. Zaintza lanean prekarietatearen inguruan hitz egiteko garaian bi gai nagusi ikusten ditugu eta gure mozioan eta zuenaren artekoaren desberdintasuna hor dago gehienbat. Alde batetik, ratioak eta lan kargak dira, eta, bestetik, soldata arrakala. Soldata arrakalaz hitz egiten dugunean garbi dago eta denak dakigu azkenean zerbitzu publiko bat azpikontrataren bidez ematen denean, azpikontratutako zerbitzu feminizatuen eta zerbitzu maskulinizatuen arteko soldata arrakala izaten dela azpikontratutako zerbitzu horietan. Hau da, zerbitzuaren ereduari buruz hitz egitea eramango gintuzkeena. Behin baino gehiagotan hitz egin dugu ereduari buruz, baina azpikontratatuak diren zerbitzu publiko horietan izaten dira lan baldintza kaskarragoak, lan karga handiagoak eta lan eskubide murriztagoak izaten dituztenak, eta, ondorioz, beti edukitzen dute bere ondorioa ematen duten arreta kalitatean. Lan baldintza kaskar horiek hobetzeko bidea lan hitzarmen egoki bat da, noski baietz, baina baita ere zerbitzua emateko jartzen diren ratioak edo langile kopuruak. Gaur egungo egoitzetan dauden egoiliarrek ez dira orain dela hamar edo hogeitertekoak, ez dauzkate behar berdinak eta ratioak dira markatuko luketenak behar horiei erantzuteko aukera gehiago edo behintzat modu hobe batean ematea zerbitzua. Gaur bertan onartu dugu hobea dela gure zerbitzurako lau baino bost langilea edukitzea. Hau da gure mozioaren eta zuek proposatutako mozioaren arteko ezberdintasunetako bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari ratio horiek hobetzeko eskaera eta zuek hori ez zenuten sartu nahi. Ratioaz hitz egiten dugunean eramaten gaitu arduraz hitz egitea, eta Eusko Jaurlaritza da ratioak markatzen dituen dekretuen bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundia da bere ratioak egokitzen dituen berak ematen dituen zerbitzuetara. Beraz, egokia iruditzen zitzaigun Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea ratio horiek hobetzea, hor dago desberdintasuna. Ratio horiek hobetuko balira, azpikontratutako enpresak langile gehiago kontratatuko beharko lituzke eta horrek beraien lan karga arinduko luke nabarmen. Agian, hori izango litzateke eramango gintuzkeena zerbitzu horietan azpikontratatuaren ereduaz hitz egitea, baina beste eztabaida bat da. Bitartean, lehen esan bezala, lan baldintzak duintzeko ahaleginik handiena lan hitzarmen egoki bat sinatzean dago eta horretarako tokia lan hitzarmenaren negoziazio mahaiak izan behar du. Baina, kasu honetan, lan negoziazioko mahai horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak egon beharko luke, ordezkari sindikal guztiak, patronala eta Gipuzkoako Foru Aldundia, azken finean GFA da da finantzatzen duena bere % 90ean zerbitzu hau eta berak zer esana badauka eta berak bermatu beharko luke eskaintzen duen zerbitzu batean langileek lan baldintza egokiak dauzkatala. Bukatzeko, berriz ere, gogoratzea gure eskumena ez dela, baina gure betebeharra bai direla gure herriko zerbitzuetan ematen den arreta kalitatea, egoiliarrek jasotzen duen arreta eta langilegoaren lan baldintzak.”

... Alkatea: “Aipatu da hiru alderdi artean mozio bateratu bat adosteko saiakera bat egin dugula, ez dela posible izan, ezberdintasun batzuk adierazi dituzte aurreko bi



TOLOSAKO
UDALA

parte-hartzeetan. Beraz, adineko pertsonentzako eguneroko egoitzei buruzko mozioa aurkezten dugu Alderdi Sozialista eta Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean bost puntutan indarra jarriz. Lehenengoa da kezka adieraztea gatazkak luze irauten duelako eta grebak zerbitzuan eragin zuzena duelako egoiliarren senitartekoak adierazten duten bezala. Gaur goizean bertan egon da Foru Aldundiaren eta egoiliarren senitartekoen artean bilera bat. Bigarrena, elkartasuna, Tolosako langileei eta bereziki Tolosako Zu eta Biok azpikontrataturako enpresako langileei elkartasuna adieraztea. Hirugarrena, gatazka amaituko duen akordioa eskatzea, sindikatu eta patronalaren artean. Laugarrena, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidea egiten jarraitzea akordioari laguntzeko. Eta bosgarrena, azkenik, zerbitzuaren kalitatea bermatzea, baita greba egunetan ere. Oinarrizko zerbitzua izanik, zalantzarik gabe, gutxieneko zerbitzuak oinarrizko beharrak betetzen dituen bermea eman behar duelako. Lehen ere aipatu da, Jose Marik aipatu du gero eta gizarte zaharkituagoa dugula gurean, menpekotasunaren prebentzioa eta pertsonak ahalik eta autonomia handiena mantentzeko politikak garrantzi handia hartzen dute, horregatik, Udaletxean dauzkagu zaintzaileei laguntzeko programak, eta menpekotasun egoeran etortzen direnerako baliabide ezinbestekoa eta oso garrantzitsua da egoitzarena, babesgabetasun egoerak ekiditeko ezinbestekoa. Horregatik planteatu dugu mozioa termino hauetan, kezka, elkartasuna, akordio eskaera eta zerbitzuaren bermea. Greba deialdi berri baten atarian aurkitzen gara eta Tolosan ere izango du eragina, beraz, lehenbailehen akordioaren eskaera berresten dugu mozio honen bitartez. “

10. Galderak eta eskaerak.

10.Ruegos y preguntas.

Ez dago ez galderarik, ez eskaerarik.

Besterik gabe, 20:10ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA